Sin./Fdo.: GABIN AZAOLA ESTEVEZ 2024-12-23
IRAUNKORTASUNERAKO ETA INGURUNE NATURALEKO ZZ.OO.BURUA
JEFE/A SERVICIO DE SS.GG. DE SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL
Sin./Fdo.: ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA - 2024-12-23
INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE MEDIO NATURAL Y AGRICULTURA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-12-26
GZK-ko A gaia onartuta - Aprobado, asunto A) de FOD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**ERABAKIA**, zeinaren bidez 2025. urterako onesten baita Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundien eta Euskal Irrati Telebistaren eta EITB MEDIA S.A.U artean "SUSTRAIA" programaren telebista-produkziorako sinatutako lankidetza-hitzarmenaren luzapena.

**ACUERDO** por el que se aprueba para 2025 la prórroga del Convenio de Colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, las Diputaciones Forales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa y Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca y EITB MEDIA S.A.U para la producción Televisiva del Programa “SUSTRAIA”

Ingurune Naturala Zaintzeko eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak eskumena du nekazaritzaren zabalkunde, sustapen eta gaikuntzaren arloan, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko 37/1983 Legearen 7.b.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

EL Departamento de Medio Natural y Agricultura tiene competencia en divulgación, promoción y capacitación agraria según el artículo 7.b.1 de la Ley 37/1983, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

2022ko otsailaren 15ean, beste lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Autonomía Erkidegoko Administrazioak eta Euskal Irrati Telebista zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, 2022-2025 aldirako. EITBren konpromisoetako bat da gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzen laguntzea, genero-ikuspegia txertatuko du SUSTRAIA programan, emakumeek beren eskubideak gauzatzeko oztopo espezifikoak dituzten landa-ingurunean egiten duten lana aitortuz, eta emakumeek landa-eremuei eusteko egiten duten ekarpena ikusaraziz, bai eta landa-eremuek eredu jasangarriago batera aldatzeko egiten duten zeregin berritzailea ere, hitzarmen horren bigarren puntuan jasotako gainerako ekintzekin batera.

El 15 de febrero de 2022 se ha suscrito un nuevo Convenio de Colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Ente Público de Derecho Privado "Radio Televisión Vasca/Euskal Irrati Telebista" para el período 2022-2025. Entre los compromisos de EITB se encuentra el contribuir en la igualdad entre hombres y mujeres, incorporará la perspectiva de género al programa “SUSTRAIA”, haciendo un reconocimiento de la labor de las mujeres en un entorno como el rural con obstáculos específicos para el ejercicio de sus derechos, así como visibilizando la aportación de las mujeres al mantenimiento de los espacios rurales y a su papel innovador en la transformación del mismo hacia un modelo más sostenible, así como el resto de las acciones recogidas en la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 61PA-CLYV-GDYH-P75U
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

cláusula segunda del citado Convenio.

Programa-kontratu horien babespean, 2002tik hona Euskal Autonomía Erkidegoko Administrazioak; Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiek eta Euskal Irrati lankidetza-hitzarmenak sinatu zuten 2004an, 2010ean, 2012an eta 2013an eta 2016an, eta hitzarmenen eta horien luzapenen helburua nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta landa ingurunea eta kostaldeari buruzko gaiak jorratzen dituen telebistako «SUSTRAIA» programa ekoiztea izan da.

Acogiéndose a estos Contrato Programa desde el año 2002, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca han suscrito varios convenios de colaboración durante los años 2004, 2010, 2012, 2013 y 2016 con diversas prórrogas para la producción televisiva del programa "SUSTRAIA", de contenido temático relativo a la agricultura, la ganadería, la pesca y el medio rural y litoral.

Denbora horretan, arrakastaz lortu dira planteatutako helburuak, eta alderdiek beren arteko lankidetza luzatzeko borondatea dute. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek, Euskal Autonomía Erkidegoko nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta landa-ingurunea eta kostaldea babesteko politiketan, uste dute komenigarria eta beharrezkoa dela EITBrekin beste lankidetza-hitzarmenaren luzapen bat sinatzea 2025rako.

Durante todo este tiempo, se han alcanzado satisfactoriamente los objetivos perseguidos, persistiendo la voluntad de las partes en continuar esta colaboración. Por ello, el Gobierno Vasco y las tres Diputaciones Forales, en sus respectivas políticas de apoyo a la agricultura, la ganadería, la pesca y al medio rural y litoral de la Comunidad Autónoma de Euskadi, entienden conveniente y necesario firmar con EITB un nueva prórroga del Convenio de Colaboración para 2025.

Aurrekontuetan horretarako beharrezko esleipena dagoen bitartean eta 2022-2025 aldirako Euskal Irrati Telebista zuzenbide pribatuko erakunde publikoarekin sinatutako programa-kontratua luzatzen bada, hitzarmen honen urteroko luzapenak ezarri ahal izango dira, ondorengo lau urteetarako.

Siempre que exista la adecuada consignación presupuestaria al efecto y siempre que se prorrogue el actual Contrato Programa con el Ente Público de derecho privado "Radio Televisión VascaEuskal Irrati Telebista" para el período 2022-2025 podrán establecerse prórrogas anuales del presente Convenio, por un periodo de hasta cuatro años adicionales.

Hori dela eta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17. eta 66. artikuluek eta Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren 9. artikuluak eta 5. xedapen gehigarriak emandako ahalmenak erabiliz, hitzarmen mota horiek izenpetzea baimentzeko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

En su virtud, en uso de las facultades conferidas por los artículos 17 y 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, de Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el art. 9 y Disposición Adicional 5ª de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, la competencia para autorizar la firma de estos convenios corresponde a la Diputación Foral.

Hori dela eta, sinatzen duenak erabaki-proiektu hau onartzeko ohorea du, Bizkaiko Foru Aldundian aurkez dadin

Por todo lo expuesto, el que suscribe, tiene el honor de someter a la consideración de V.I., para su elevación a la Diputación Foral, el siguiente proyecto de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 61PA-CLYV-GDYH-P75U
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca eta EITB MEDIA S.A.Uren arteko lankidetza-hitzarmenaren luzapena baimentzea, 2025. urtean "SUSTRAIA" programa telebistan emateko. Hitzarmenaren testua eranskin gisa erantsi da.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren luzapenari esleitutako zenbateko ekonomikoa onestea, 55.274,59 euroan, guztira, eta Administrazio Orokorraren honako aurrekontu partidaren kargura: 239.02 kontzeptua; 920.106 programa; 0201 organikoa; 2020/0014 aurrekontu-proiektua, "BFAko orokorra"

HIRUGARRENA.- Ingurune Naturala Zaintzeko eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematea lankidetza-hitzarmenaren luzapena sinatzeko.

ACUERDO

PRIMERO.- Autorizar la suscripción de la prórroga del Convenio de Colaboración, cuyo texto se adjunta como Anexo, entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, las Diputaciones Forales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa y Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca y EITB MEDIA S.A.U para la producción Televisiva del Programa "SUSTRAIA" durante el año 2025.

SEGUNDO.- Aprobar la cuantía económica asignada a la Prórroga del Convenio, por un importe de 55.274.59 euros, con cargo a la partida presupuestaria Administración General, Concepto 239.02, Programa 920.106, Orgánico 0201, Proyecto Presupuestario 2020/014 "Genérico D.F.B."

TERCERO.- Facultar a la Ilma. Sra. Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura para la firma de la prórroga del referido Convenio de Colaboración.

Zerbitzuzu Orokorretako

Zerbitzuko burua / La jefatura de

Servicios Generales. GABIN

AZAOLA ESTÉVEZ

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. / De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.

Ingurune Naturala Zaintzeko eta Nekazaritza Sustatzeko foru-diputatua / la diputada foral de Medio Natural y Agricultura

ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 61PA-CLYV-GDYH-P75U
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

**2025 URTERAKO LUZAPEN-ERANSKINA "SUSTRAIA" TELEBISTA-SAIOA EKOIZTEKO, EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK, ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO FORU-ALDUNDIEKIN ALDE BATETIK ETA EUSKAL IRRATI TELEBISTAREKIN ETA EITB MEDIA SAU BESTETIK, 2022KO OTSAILAREN 15AN IZENPETUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENARENA.**

**PRÓRROGA PARA EL AÑO 2025 DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO EL 15 DE FEBRERO DE 2022 ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, LAS DIPUTACIONES FORALES DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA Y EUSKAL IRRATI TELEBISTA-RADIO TELEVISIÓN VASCA Y EITB MEDIA S.A.U) PARA LA PRODUCCIÓN TELEVISIVA DEL PROGRAMA "SUSTRAIA".**

Vitoria-Gasteizen,

En Vitoria-Gasteiz,

**BILDU DIRENAK**

**REUNIDOS**

Amaya BARREDO MARTÍN andrea, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrrantzako sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta haren ordezkari gisa.

Doña Amaya BARREDO MARTÍN Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca , actuando en nombre y representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Noemí AGUIRRE QUINTANA andrea, Nekazaritzako foru diputatua, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa.

Doña Noemí AGUIRRE QUINTANA, Diputada foral de Agricultura, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Álava.

ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA andrea, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa.

Doña ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA, Diputada foral de Medio Natural y Agricultura, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 61PA-CLYV-GDYH-P75U
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

XABIER ARRUTI OLAZABAL jauna, Lurralde Oreka Berdeako foru diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa.

JON ANDONI ALDEKOA DE LA TORRE jauna, Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca Erakunde Publikokoaren izenean eta haren ordezkari giza bere zuzendari nagusi kalitatean eta EUSKAL MEDIA S.A.U.ren izenean eta haren ordezkari gisa bere administratzaile bakarra den kalitatean.

Hitzarmenkideek protokolo hau izenpetzeko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri eta hortaz honako hau

**ADIERAZI DUTE:**

**Lehenengoa.-** 2022ko otsailaren 15an aldeek lankidetza-hitzarmena sinatuta zutela "SUSTRAIA" programa telebistan emateko. Hitzarmen horren indarraldia 2022ko abenduaren 31 artekoa zen. Ondoren, 2023ko abenduaren 31ra arte luzatu zen, 2022ko abenduaren 30eko luzapen-akordioa formalizatuz eta ondoren, 2024ko abenduaren 31ra arte luzatu zen, 2023ko azaroaren 13an beste luzapen-akordio baten bidez.

D. XABIER ARRUTI OLAZABAL, Diputado foral de Equilibrio Territorial Verde, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

D. JON ANDONI ALDEKOA DE LA TORRE, en nombre y representación del Ente Público Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca, en su calidad de Director General del mismo, así como, en nombre y representación de EUSKAL MEDIA S.A.U., en su calidad de Administrador único de la misma.

Actuando todos en razón de sus respectivas competencias y reconociéndose facultades para la suscripción del presente Protocolo y en tal sentido,

**EXPONEN:**

**Primero.-** Que con fecha 15 de febrero de 2022 las partes suscribieron un Convenio de Colaboración para la producción televisiva del programa "SUSTRAIA" con una vigencia que abarcaba hasta el 31 de diciembre de 2022, posteriormente prorrogado hasta el 31 de diciembre de 2023 a través de la formalización del acuerdo de prórroga de fecha 30 de diciembre de 2022 y posteriormente prorrogado hasta el 31 de diciembre de 2024 con la formalización de un nuevo acuerdo de prórroga el 13 de noviembre de 2023.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 61PA-CLYV-GDYH-P75U
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

**Bigarrena.-** Hitzarmeneko zortzigarren klausulak aurreikusten duela hitzarmena urtero luza daitekeela, gehienez lau urte oso gehitu arte, luzapen-protokolo baten bidez. Ekitaldi bakoitzean egin beharreko jardueren zerrenda erantsi behar zaio protokolo horri, eta, hala badagokio, jarduerak gauzatzeko kostua eguneratu behar da. Hori guztia baldintza kreditu egokia eta nahikoa dela eta Erakunde Publikoak egungo Programa Kontratu indarrean izatea zuzenbide pribatuko "Radio Television Vasca-Euskal Irrati Telebista"rekin 2016-2019 urteetarako eta bere Eranskinean haren konpromisoak gauzatzeko. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da 2022ko martxoaren 8an programa-kontratu berri bat formalizatu zela 2022-2025 aldirako.

**Segundo.-** Que la Cláusula octava del precitado Convenio, prevé la posibilidad de prorrogarlo anualmente, formalizando un protocolo de prórroga, al que se le anexionará la relación de actividades a realizar en cada ejercicio y la actualización, en su caso, del coste de ejecución de las mismas. Todo ello bajo la condición suspensiva de que exista crédito adecuado y suficiente, exista un contrato programa vigente para el ente público de derecho privado "Radio Televisión Vasca- Euskal Irratia Telebista" y su Anexo de concreción de compromisos al mismo. A este respecto, cabe destacar la formalización el 8 de marzo de 2022 de un nuevo contrato programa para el periodo 2022-2025.

Aurreko guztiaren ondorioz, hitzarmenkideek honakoa

En consecuencia las partes intervinientes

**HAU ERABAKI DUTE:**

**ACUERDAN:**

**LEHENA.-** 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen saila), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru-Aldundiek, eta "Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca"-k EITB MEDIA SAU-k "SUSTRAIA" programa telebistan emateko sinatutako lankidetza-hitzarmena urtebetez luzatzea, hau da, 2025ko urtarrilaren 1etik 2025ko abenduaren 31ra.

**PRIMERO.-** 1.- Prorrogar durante un año, desde el 1 de enero de 2025 hasta el 31 de diciembre de 2025, el Convenio de Colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi (Desarollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente), las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca y EITB MEDIA S.A.U. para la producción televisiva del programa "SUSTRAIA".

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 61PA-CLYV-GDYH-P75U
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2.- Luzatutako aldian hogeitahamar (30) programa ekoitziko direla aurreikusi da.

2.- Está previsto que durante el periodo prorrogado se producirán un total de treinta (30) programas.

3.- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak 2, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru-Aldundiek, “Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca”-k eta EITB MEDIA SAU-k “SUSTRAIA” programa telebistan emateko 2022ko otsailaren 15an sinatutako lankidetza-hitzarmeneko bigarren klausulan azaltzen direnak izango dira gauzatu beharreko jarduerak. Jarduera horien kostua ondorengo taulan ezarritakoaren arabera ordainduko da:

| | |
|---|---|
| EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRA | 97.370,35 EURO |
| ARABAKO FORU ALDUNDIA | 20.593,43EURO |
| BIZKAIKO FORU ALDUNDIA | 55.274,59 EURO |
| GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA | 28.605,98 EURO |
| EITB | 37.336,06 EURO |
| **GUZTIRA** | 239.180,41 EURO |

3.- Las acciones a realizar son las contenidas en la cláusula segunda del Convenio de Colaboración suscrito el 15 de febrero de 2022 entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca y EITB MEDIA S.A.U. para la producción televisiva del programa “SUSTRAIA” y el coste de las mismas será abonado en la cuantía y según lo establecido en el siguiente cuadro:

| | |
|---|---|
| ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI | 97.370,35 EUROS |
| DIPUTACIÓN FORAL DE ARABA | 20.593,43 EUROS |
| DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA | 55.274,59 EUROS |
| DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA | 28.605,98 EUROS |
| EITB | 37.336,06 EUROS |
| **TOTAL** | 239.180,41 EUROS |

4.- Ordainketa modu honetara egitea erabaki dute sinatzaileek: Alderdi bakoitzak egin

4.- Las partes firmantes acuerdan la siguiente forma de pago: El 50% de la aportación de cada

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 61PA-CLYV-GDYH-P75U
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

beharreko ekarpenaren % 50 ordainduko du 2025ko ekainaren 30a baino lehen. Gainontzeko % 50a 2025ko abenduaren 31an ordainduko du alderdi bakoitzak. Ordaintzeko, banku-transferentzia egin beharko zaio EITB MEDIA SAUri, eta fakturak bidali beharko zaizkio alderdi bakoitzari.

**BIGARRENA.-** Luzapena, bertako jarduerak eta proiektuak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintzapean dago eta Erakunde Publikoak egungo Programa Kontratua indarrean izatea zuzenbide pribatuko "Radio Television Vasca-Euskal Irrati Telebista"rekin 2022-2025 urteetarako eta bere Eranskinean haren konpromisoak gauzatzeko.

Alderdiak bat datozela eta adierazitako guztia onartzen dutela erakusteko, hitzarmen honen bost ale sinatu dituzte, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

una de las partes se hará efectiva el día 30 de junio de 2025. El 50% restante, de cada una de las partes, se hará efectiva a fecha de 31 de diciembre de 2025. El pago se materializará mediante transferencia bancaria a nombre de EITB MEDIA S.A.U. debiendo enviar a cada una de las partes las facturas correspondientes.

**SEGUNDO.-** La prórroga quedará condiciona a la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las actividades y proyectos objeto de ésta y a que se encuentre en vigor el Contrato Programa con el Ente Público de derecho privado “Radio Televisión Vasca- Euskal Irrati Telebista” para el periodo 2022-2025 y su Anexo de concreción de compromisos al mismo.

Y en prueba de conformidad con lo expuesto, las partes firman cinco ejemplares de presente documento, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

*Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua*
*/*
Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco

*Arabako Foru Aldundiko Nekazaritzako foru diputatu*
*./*
Diputada foral de Agricultura de la Diputación Foral de Álava

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatua/
Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Berdeako foru diputatua /
Diputado foral de Equilibrio Territorial V la Diputación Foral de Gipuzkoa

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 61PA-CLYV-GDYH-P75U
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

*Euskal Irrati Telebistako zuzendaria eta EITB MEDIA S.A.U.ko administratzaile bakarra /*
Director General de Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca y Administrador único de EITB MEDIA, S.A.U.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 61PA-CLYV-GDYH-P75U
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus